

Maiatzaren 11ko 49/1999 FORU DEKRETUA, Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onartzen duena.¹

Abenduaren 10ko 16/2014 FORU ARAUAK, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, bere xedapenean indargabetzaile bakarraren bigarren apartatuan, zera ezartzen du, aipaturiko foru arauan bildutako ahalmenak direla bide emandako arauak indarrean jarri arte, indarrean jarraituko dutela Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren apirilaren 26ko 2/1999 Foru Araua garatzeko erregelamenduzko xedapenek, foru arau hartan xedatutakoaren aurkakoak ez diren heinean.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru dekretuaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. KAPITULUA: ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRAREN BITARTEZ LORTUTAKO ERRENTAK	4
1. artikulua. Establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare elementuak.	4
1.bis artikulua. Establezimendu iraunkor bat baino gehiago egotea.	4
2. artikulua. Establezimendu iraunkorrei egotzitako zuzendaritza gastuen eta administrazio gastu orokorren balorazioa.	4
3. artikulua. Zenbait establezimendu iraunkorren tributazio aukera.	5
II. KAPITULUA: ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTUTAKO ERRENTAK	5
4. artikulua. Jarduera edo ustiapen ekonomikoei dagokien oinarri ezargarria zehaztea.	5
5. artikulua. Betebehar formalak.	5
6. artikulua. Zergaren aitorpena establezimendu iraunkorrik gabe Espainian lortutako errentengatik. .	6
III. KAPITULUA: ENTITATE EZ EGOILIARREN ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO KARGA BEREZIA	6
7. artikulua. Entitate Ez Egoiliarren Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Berezia.	6
IV. KAPITULUA: AUKERAZKO ERREGIMENA EUROPAKO BATASUNEKO BESTE ESTATU BATZUETAN EGOITZA DUTEN ZERGADUNENTZAT	7
8. artikulua. Aplikazio eremua.	7
9. artikulua. Erregimenaren edukia.	9
10. artikulua. Prozedura.	10
11. artikulua. Zerga honen zergaduna izatea.	11
V. KAPITULUA: KONTURAKO ORDAINKETAK.	11
1. Sekzioa: Establezimendu iraunkor bitartez lortutako errentak.	11
12. artikulua. Establezimendu iraunkorren konturako ordainketak.	11
2. Sekzioa: Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak.	12
13. artikulua. Atxikipekak eta konturako sarrerak egiteko betebeharrak.	12
14. artikulua. Atxiki edo kontura sartzeko obligazioaren salbuespenak.	12

¹ Azaroaren 27ko 1.202/2001 Foru Aginduak, hainbat zerga arautan jasotako zenbatekoak pezetatik eurora aldatu eta aldaketa horri buruzko arauak ematen dituenak, xedatutakoari jarraiki, Foru Dekretu honek pezetatan jasotzen dituen zenbateko guztiak eurotara aldatuak geratzen dira. (Abenduaren 13ko GAO, 238. zk.a)

15. artikulua. Atxikitzaera edo kontura sartzera behartutako subjektuak.....	13
16. artikulua. Atxikitzaera edo kontura sartzeko betebeharra sortzea.....	14
17. artikulua. Atxikitzaera edo kontura sartzeko betebeharra kalkulatzeko oinarria.....	14
18. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera ondasun higiezinak eskuratzean.....	15
19. artikulua. Atxikitzailearen eta kontura sartzera behartutakoaren betebeharrak.....	16
20. artikulua. Itzulketak.....	17
21. artikulua. Lan etekinen gainean atxikitzaera betebeharrak, egoitza aldatzen denean.....	17
3. sekzioa. <i>Errentak egozteko erregimenean dauden entitateak</i>	18
22. artikulua. Ordainketak zatikatzeko betebeharra.....	18
23. artikulua. Kuota itzultzea ezarpen bikoitzeko hitzarmen mesedegarriagoa aldarrikatzen denean.....	19
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	19
Lehenengoa.....	19
Bigarrena.....	19
Hirugarrena. Espainiako inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak mugaz gaindi merkaturatzea.....	19
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	20
AMAIERAKO XEDAPENA.....	21

Apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak, Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, testu arauemaile bakarrean jaso du lurralde espainiarrean egoitza ez duten pertsona fisikoek eta entitateek Gipuzkoan lortutako errenten zerga araudia. Era berean, indarrik gabe utzi ditu abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, eta uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, jasotzen duten zerga ordainketarako ondasun betebeharrari buruzko arauak.

Horrekin bat etorriz, beharrezkoa da aipatu foru araua garatzeko erregelamenduzko xedapenak ere testu bakarrean jasotzea, aldi berean horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauditik kanpo utzita.

Horixe da, beraz, Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onartzen duen Foru Dekretuaren helburua.

Foru dekretu honen egitura hauxe da: bost kapitulu, bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta amaierako xedapen bat.

I. kapituluan Zergari buruzko Foru Arauaren zenbait alderdi garatu da, establezimendu iraunkor bitartez lortutako errentei dagokienez.

II. kapituluan Zergari buruzko Foru Arauaren zenbait alderdi jaso da, establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten tributazio araudiari dagokienez.

III. kapituluan Zergaren Foru Araua garatu da Entitate Ez Egoiliarren Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Bereziari dagokionez.

IV. kapituluan Zergaren Foru Arauak 33. artikuluan jasotako tributazioaren aukerazko erregimena garatu da, Europako Batasuneko zergadun egoiliarrei dagokionez.

Azkenik, V. kapituluan lurralde espainiarreko zergadun ez egoiliarrek, establezimendu iraunkorren bitartez edo horiek gabe, lortutako errentei aplikagarria zaien konturako ordainketen erregimena erregulatu da. Aldi berean, aipatu araudia urtarilaren 19ko 3/1999 Foru Dekretutik kanpo utzi da.

Lehen xedapen gehigarrian, foru dekretu honek indargabetutako erregimenari buruz indarrean dagoen erregimenean jasotako arau aipamenak bildu dira.

Bestalde, bigarren xedapen gehigarrian 3/1999 Foru Dekretuaren izendapena aldatu da.

Xedapen indargabetzailearen bitartez Foru Dekretuan xedatutakoaren aurka doazen arauak indargabetu dira. Azkenik, amaierako xedapenean, indarrean jartzeko eguna finkatu da eta foru dekretu hau garatzeko ahalmenak eman dira.

Gauzak horrela, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatu Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu ondoren, hauxe:

XEDATU DUT

I. Kapituluia: Establezimendu iraunkorraren bitartez lortutako errentak

1. artikulua. Establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare elementuak.²

Establezimendu iraunkorraren xedea den jardueraren garapenari funtzionalki lotuta dauden eta entitate baten fondo propioetako partaidetza ordezkatzeko duten aktiboak establezimenduari atxikitako ondare elementutzat hartuko dira Merkataritza Erregistroan izena emandako sukurtsala denean eta beharkizun hauek betetzen direnean bakarrik :

- a) Aktibo horiek establezimendu iraunkorraren kontabilitate egoeretan jasotzea.
- b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 74. artikuluan jasotakoaren arabera sozietate nagusitzat har daitezkeen establezimenduak izanik, establezimendu iraunkor horrek bitarteko materialak eta giza baliabideak antolatzea partaidetzak zuzendu eta kudeatzeko.”

1.bis artikulua. Establezimendu iraunkor bat baino gehiago egotea.³

Zergadun batek jarduera zentro bat baino gehiago dituenean, baldin eta Zergaren Foru Arauak 16. artikuluan 1 apartatuan jasotakoaren arabera establezimendu iraunkor desberdinak badira, izendapen berezitua eman beharko dio horietako bakoitzari.

Zergadun horiek pertsona juridikoak direnean, identifikazio fiskaleko zenbaki desberdina lortu beharko dute establezimendu iraunkor bakoitzarentzat.

2. artikulua. Establezimendu iraunkorrei egotzitako zuzendaritza gastuen eta administrazioko gastu orokorren balorazioa.

1. Establezimendu iraunkor bitartez jarduten diren zergadunek Zerga Administrazioari aurkez diezaizkiokete administrazio gastuetan eta administrazioko gastu orokorretan establezimendu iraunkorrari dagokion eta horren oinarri ezargarria zehazteko kenkariduna den zatia baloratzeko proposamenak, Zergaren Foru Arauak 17. artikuluan 1 apartatuko b) letran xedatutakoaren arabera. Proposamen horiek artikulua horretan jasotako egozpen irizpideen aplikazioan oinarritu beharko dira.

2. Eskaerak tramitatu eta erabakitzeko, elkarri lotutako entitateen artean emandako kudeaketaren laguntza zerbitzuen kontzeptuan egon diren gastuen kenkarirako proposamenei buruz finkatutako prozedura erabiliko da. Izan ere, prozedura hori ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuaren bitartez onartutako Sozietate Zergaren Erregelamenduaren IV. kapituluaren araututa dago, ondoko apartatuan aipatutako berezitasuna eta guzti.

² Artikulu honen errubrika, abenduaren 16ko 101/2003 FORU DEKRETUaren 1. artikulua aldatu du (2003-12-26ko GAO). Foru dekretu horrek Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa GAOari argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean, eta 2003ko urtarilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako du eragina..

³ Artikulu hau, abenduaren 16ko 101/2003 FORU DEKRETUaren 2. artikulua aldatu du (2003-12-26ko GAO). Foru dekretu horrek Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa GAOari argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean, eta 2003ko urtarilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako du eragina.

3. Sozietate Zergaren Erregelamenduak 10.4 artikuluan jasotakoari dagokionez, proposamenarekin batera zergadunek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Proposamenean sartutako zuzendaritza gastuen eta administrazioeko gastu orokorren deskripzioa.

b) Establezimendu iraunkorrari egotziko zaizkion gastuen identifikazioa, eta banaketa irizpide eta moduluak.

c) Beste Estatu bateko zerga administrazioetan onartuta dauden edo tramitatzen ari diren proposamenak.

3. artikulua. Zenbait establezimendu iraunkorren tributazio aukera.

Zergaren Foru Arauak 17. artikulua 5 apartatuko b) letran jasotakoaren arabera establezimendu iraunkorren erregimen orokorraren aplikazioa hautatzen duten zergadunen aukerak establezimendu iraunkorraren eraikuntza, instalazio edo muntaia edo jarduerak dirauen denbora osoan izango du ondorioa.

II. Kapituluak: Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak

4. artikulua. Jarduera edo ustiapen ekonomikoei dagokien oinarri ezargarria zehaztea.

1. Establezimendu iraunkorrik gabe egindako jarduera edo ustiapen ekonomikoak direnean, oinarri ezargarria zehazteko ondoko partida hauen kenkaria egin daiteke sarrera osoetan:

a) Espainiara eraman diren edo lurralde espainiarrean kontratatu diren langileen soldatak eta karga sozialak, jarduera edo ustiapen ekonomikoen garapenean zuzenean aritu direnean, baldin eta zergari edo lan etekinen konturako ordainketei dagokien sarrera behar bezala frogatu edo bermatu bada.

b) Materialen hornidura, lurralde espainiarrean egindako obra edo lanetan behin betiko erabiltzeko. Materialak lurralde espainiarrean erosi ez direnean, aduanako eskubideen edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazioa egitean aitortu den zenbatekoaren kenkaria egin daiteke.

c) Lurralde espainiarrean kontsumitutako hornigaiak, jarduera edo ustiapen ekonomikoak garatzeko. Ondorio horietarako, hornigaitzat hartuko dira biltegiagarri izaera ez dutenak bakarrik.

2. Aurreko b) eta c) letretan aipatutako partiden kenkaria egin ahal izango da sarreretan, baldin eta gastua egon dela frogatzen duten faktura edo agiri baliokideak enpresari edo profesionalek fakturak egiteko eta emateko duten betebeharrari buruzko arauetan exigitutako betebeharrak formalak konplutuz egin badira bakarrik.

5. artikulua. Betebehar formalak.

1. Zergaren Foru Arauak 23.2 artikuluan aipatutako errentak lortzen dituzten zergadunak behartuta daude ondorengo erregistro-liburuak eramatera:

a) Sarreraren erregistro-liburua.

b) Gastuen erregistro-liburua.

2. Era berean, aurreko apartatuan aipatutako zergadunek data ordenaren arabera gorde beharko dituzte apirilaren 21eko 43/1998 Foru Dekretuak, enpresari eta profesionalek faktura egin eta emateko duten betebeharra arautzen duenak, jasotakoaren arabera egindako fakturak, bai eta beraiek jaso dituzten bestelako fakturak edo frogagiriak ere.

3. Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuari baimena ematen zaio artikuluko honetan aipatutako erregistro-liburuak eramateko modua zehatz dezan.

6. artikulua. Zergaren aitortpena establezimendu iraunkorrik gabe Espainian lortutako errentengatik.

1. Establezimendu iraunkorrik gabe Zergari lotutako errentak lortzen dituzten zergadunak behartuta daude aitortpena aurkeztera. Zentzu horretan, zerga zorra zehaztu eta ordaindu beharko dute.

Ezarpen bikoitza saihesteko Espainiarekin hitzarmena sinatu duten herrietako egoiliarrek izateagatik, hitzarmen horretara biltzen diren zergadunek zerga zorra zehaztuko dute beren aitortpenean, hitzarmenean jasotako ezarpen mugak edo salbuespenak zuzenean aplikatuz. Horretarako, aitortpenarekin batera zerga agintariek luzatutako egoitza ziurtagiria aurkeztuko dute edo, bestela, hitzarmenen garapen aginduetan jasotako formularioa.

2. Zergaren Foru Arauak 8. artikuluan jasotako erantzule solidarioek ere zerga zorraren aitortpena eta ordainketa egin dezakete.

3. Aurreko 1 apartatuan jasotakoa jasota ere, zerga honen zergadunak ez daude behartuta errenten aitortpena aurkeztera, baldin eta errenta horiei Zergaren atxikipena edo konturako sarrera egin bazaie, edota atxikipenari edo konturako sarrerari lotu gabe egon arren Zergaren Foru Arauak 13. artikuluan edo ezarpen bikoitzerako hitzarmen batek jasotakoaren arabera salbuetsita badaude.

4. Zergaren aitortpena aurkeztera behartuta daude, artikuluko honen aurreko apartatuaren jasotako moduan, zergari lotuta egon arren erregelamendu honek 14. artikuluan 3 apartatuaren arabera atxikitzeko edo kontura sartzeko betebeharretik salbuetsita dauden errentak lortzen dituzten zergadunak.

III. Kapitulua: Entitate Ez Egoiliarren Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Berezia

7. artikulua. Entitate Ez Egoiliarren Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Berezia.

1. Edozein tituluren bitartez Gipuzkoan ondasun higiezinaren edo horien gaineko erabilerako edo gozameneko ondasun eskubideen jabe diren edo horiek dauzkaten entitate ez egoiliarrak Zergari lotuta egongo dira karga berezi baten bidez. Aipatu karga urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko da, eta ondorengo urtarrian aitortu eta ordaindu beharko da.

Entitate ez egoiliar batek edozein tituluren bitartez Gipuzkoan ondasun higiezin baten edo gehiagoren edo horien gaineko gozameneko ondasun eskubideen jabe denean edo horiek dauzkanean, aitorpen bakarra aurkeztuko du karga berezi honengatik. Era berean, ondasun higiezin bakoitza berezita zehaztuko duen zerrenda aurkeztuko du. Horretarako, ondasun higieztintzat hartuko da erreferentzia katastral berezitua duena.

2.⁴ Zergaren Foru Arauak 32. artikularen 5 apartatuko c) paragrafoan jasotakoaren ondorioetarako, ondasun higiezinaren edukitza soiletik edo errentamendutik bereiz daitekeen ustiapen ekonomikoa dagoela ulertuko da ondorengo zirkunstantzietako edozein gertatzen denean:

a) Entitate ez-egoiliarren jabetza edo edukitza dagokion edo erabilerako edo gozameneko ondasun eskubideak dagozkion ondasun higiezinaren edo higiezinaren benetako balioa bost aldiz handiagoa ez izatea ustiapen ekonomiko bati atxikitako ondare elementuen benetako balioa baino. Horretarako, ustiapenaren helburuari zati batean erantzuten dioten ondasun higiezinak direnean, ustiapenean benetan erabiltzen den higiezinaren zatia kontuan hartuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, ondasun higiezin osoari eragiten dion ustiapen ekonomiko berezitua dagoenik ulertu ezin denean, karga bereziaren oinarri ezargarria osatuta egongo da bakarrik ustiapen ekonomikoan erabili gabeko higiezinaren zatia dagokion balio katastralaren zatiaz edo, halakorik ez badago, Ondare Zergaren ondorioetarako aplikagarriak diren xedapenen arabera kalkulaturako balioaren zatiaz.

b) Ustiapen ekonomikoaren urteko eragiketa bolumena karga bereziaren oinarri ezargarria baino lau aldiz handiagoa edo gehiagokoa izatea, Zergaren Foru Arauak 32. artikularen 2 apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulaturakoa.

c) Ustiapen ekonomikoaren urteko eragiketa bolumena 600.000 eurokoa edo hortik gorakoa izatea.

3. Zergaren Foru Arauak 32. artikularen 5 apartatuko d) letran jasotako suposamendua ere aplikatuko da ondasun higiezinaren jabetza zeharkakoa bada, nazioarteko ezarpen bikoitzari buruzko hitzarmena aplikatzeko eskubidea duen entitate baten bitartez.

4. Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak finkatuko ditu Entitate Ez Egoiliarren Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Bereziaren aitorpen ereduak.

IV. Kapituluak: Aukerazko erregimena Europako Batasuneko beste estatu batzuetan egoitza duten zergadunentzat

8. artikulua. Aplikazio eremua.⁵

⁴ 2. Apartatu hau, abenduaren 16ko 101/2003 FORU DEKRETUaren 3. artikulua aldatu du (2003-12-26ko GAO). Foru dekretu horrek Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa GAOari argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako du eragina.

⁵ 1. eta 2. apartatuak, abenduaren 16ko 101/2003 FORU DEKRETUaren 4. artikulua aldatu ditu (2003-12-26ko GAO). Foru dekretu horrek Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko

1. Aukerako erregimen hau ondoko baldintza hauek betetzen dituzten zerga honen zergadunek eskatu ahal izango dute:

a) Pertsona fisikoak izatea.

b) Europako Batasuneko estatu batean egoiliarrek direla frogatzea.

c) Zirkunstantzia hauek frogatzea:

1.- Zergaldian lortutako errenta osoaren 100eko 75a, gutxienez, lurralde espainiarrean zergaldi horretan lortutako lan etekinen eta jarduera ekonomikoen batura izatea.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoan lortutako lan etekinek eta jarduera ekonomikoen etekinek zatirik handiena hartzea lurralde espainiarrean lortutako errenta osoan.

3.- Gipuzkoan lortutako lan etekinen eta jarduera ekonomikoen etekinen batura handiagoa izatea beste bi lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoak baino.

d) Aurreko letran aipatutakoaren arabera lurralde espainiarrean lortutako errentengatik Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga ordaintzea.

2. Zergadunak zergaldian lortutako errenta osoa zehazteko, zergaldi horretan lortutako errenta guztiak kontuan hartuko dira, non sortu diren eta ordaintzailearen egoitza non dagoen begiratu gabe.

Aurreko 1 apartatuko c) letraren 1 eta 2 zenbakietan jasotakoaren ondorioetarako:

— Errentak kalifikatzeko, otsailaren 26ko 326/1999 Errege Dekretuak, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 8.2.b) artikuluan xedatutakoa kontuan hartuko da.

— Errenten zenbateko garbiak konputatzeko dira, otsailaren 26ko 326/1999 Errege Dekretuak, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 8.2.c) artikuluan xedatutakoari jarraituz zehaztuta.

Aurreko 1 apartatuaren c) letraren 3 zenbakian jasotakoaren ondorioetarako, errentak kalifikatu eta konputatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak xedatutakoari kasu egingo zaio.

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko araudian jasotako famili unitatearen modalitateetako batean sartzen diren zerga honen zergadunek eskatu ahal izango dute kapitulu honetan araututako aukerako erregimena aplikatzeko, aipatu araudiak baterako tributazioari buruz jasotako arauak kontuan hartuta, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badira:⁶

maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa GAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako du eragina

⁶ Paragrafo hau, abenduaren 16ko 101/2003 FORU DEKRETUAren 5. artikulua aldatu du (2003-12-26ko GAO). Foru dekretu horrek Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa GAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako du eragina.

a) Ezkontideak eta, hala dagokienean, famili unitateko gainerako kideek egoitza Europako Batasuneko estatu batean dutela frogatzea.

b) Aurreko 1 apartatuko c) eta d) letretan jasotako baldintzak famili unitateko kide guztiek lortutako errenta guztiak kontuan hartuta betetzea.

c) Eskaera famili unitateko kide guztiek edo, hala badagokio, haien legezko ordezkariak egitea.

4.⁷ Kapitulu honetan jasotako aukerako erregimena aplikatzeko, zergaldia urte naturalarekin bat etorriko da. Dena den, zergaduna abenduaren 31 ez den egun batean hilez gero, zergaldia heriotza egunean amaituko da.

Urte bakoitzeko abenduaren 31ko egoera kontuan izanik zehaztuko da zeintzuk diren familia unitateko kideak.

Dena den, urtearen barruan familia unitateko kideren bat hiltzen bada, familia unitateko gainerako kideek baterako tributazioa aukeratu ahal izango dute. Halakorik bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak jasotako familia kenkarien zatia ere sartuko dute, hildakoa familia unitateko kide izan den urte naturaleko egun kopuruaren proportzioan.

5. Aukerazko erregimena inoiz ere ez zaie aplikatuko erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako herri edo lurraldeetan egoiliar diren zergadunei.

9. artikulua. Erregimenaren edukia.

1. Behin erregimenaren aplikazioa bidezkoa dela frogatu ondoren, artikulua honetan xedatutakoaren arabera jokatu da.

2.⁸ Zerga Administrazioak zehaztuko du zergadunak aukerako erregimenaren aplikazioa eskatu duen zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatekoa.

Kalkulua egiteko, ondoko irizpide hauek erabiliko dira:

a) Zergadunak zergaldian lortutako errenta guztiak eta behar bezala frogatutako zirkunstantzia pertsonal eta familiarak kontuan hartuko dira.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak 68. artikuluan 1 apartatuan jasotakoa aplikatuko da.

c) Zerga Administrazioak batez besteko karga tasa finkatuko du, ondoko zatidura 100ekin biderkatzearen emaitza izango dena:

⁷ 4. apartatu hau, abenduaren 16ko 101/2003 FORU DEKRETUaren 6. artikulua aldatu du (2003-12-26ko GAO). Foru dekretu horrek Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa GAO n argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako du eragina

⁸ 2 zenbaki hau abenduaren 21eko 99/2004 FORU DEKRETUaren 4. Artikuluaren Bat zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ondarearen gaineko Zergarena eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen ditu. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean, baina aldaketa honek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu. (GAO 2004-12-30).

Zenbakitzailean, kuota osoari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak VII. tituluan jasotako kenkariak, salbu 82. eta 85. artikuluan finkatutakoak, gutxitzearen emaitza.

Izendatzailean, oinarri likidagarria.

Batez besteko karga tasa bi zenbaki hamartarrekin adieraziko da.

d) Horrela lortutako batez besteko karga tasa aukerako erregimena aplikaziozkoa zaion zergadunak zergaldiaren barruan lurralde espainiarrean lortutako errentei oinarri likidagarrian dagokien zatia aplikatuko zaio.

3. Aurreko apartatuan deskribatutako eragiketak egitearen emaitza txikiagoa bada zergadunak Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kontzeptuan lurralde espainiarrean lortutako errentengatik, konturako ordainketak barne, zergaldian ordaindutako kopuruen zenbateko osoa baino, Zerga Administrazioak soberakina itzuliko du, behar diren egiaztapenak egin ondoren, hurrengo artikuluan jasotako prozedurari jarraituaz.

10. artikulua. Prozedura.

1. Erregelamendu honetako 8. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten zerga honetako zergadunek kapitulu honetako araututako aukerazko erregimena eskatu ahal izango dute.

Zergaduna hilez gero, kausatzailearen ondorengo ahaideek eskatu egin ahal izango dute eskaera.

2. Administrazioak zergadunari eskatu ahal izango dizkio aukerazko erregimenaren baldintzak betetzen direla frogatzeko behar diren frogagiri guztiak.

Hala gertatzen denean, zergadunari eskatuko dio hilabeteko epean beharrezko dokumentazioa aurkezteko. Era berean, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

Erregimenaren aplikazioa edo kontuan hartu beharreko zirkunstantzia pertsonal edo familiarak frogatzeko aurkeztutako dokumentazioa lurralde espainiarrean ofiziala ez den hizkuntza batean idatzita dagoenean, itzulpenarekin batera aurkeztuko da.

3. Eskaera ebazteko erabakia hartu aurretik, espedienteak erakutsiko zaio zergadunari edo, hala dagokionean, ordezkariari, egoki deritzen alegazioak egin ditzan.

4. Administrazioak sei hilabeteko epea izango du, eskaera egin denetik aurrera, ebazpena emateko, baldin eta behar diren datu eta frogagiri guztiak aurkeztu badira.

Epe hori amaitu ondoren, eskaera ezetsi dela ulertuko da, ustezko ebazpenaren aurka errekurtsioa edo erreklamazioak jartzearen ondorioetarako, edo ebazpen espresuaren zain egon beharko da.

Isilbidezko ezespena gertatzen denean, ondorengo ebazpen espresua isilpenaren zentzuari batere lotu gabe emango da.

5. Ebazpenean, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera egindako kalkuluak jasoko dira. Hala gertatzen denean, Zerga Administrazioak Erregelamenduko 9. artikulua 3 apartatua aipatutako soberakina itzuliko du. Nolanahi ere, ondoren bidezkoak diren behin-behineko edo behin betiko likidazioak egingo dira.⁹

Soberakina aurreko 4 apartatua jasotako epearen barruan itzuliko da.

Aipatu epean zergadunari leporatuezineko arrazoi batengatik itzulketaren ordainketa agindu ez bada, itzultzeko kopuruari urtarilaren 31ko Zergen Foru Arau Orokorrek 58.2.b) artikuluan aipatutako berandutza interesa aplikatuko zaio, aipatu epea amaitu ondorengo egunetik eta ordainketaren agindua eman bitartean, zergadunak erreklamatu beharrik gabe.

6. Artikulu honetan aipatutako itzulketak ordaintzeko modua eta prozedura erregelamendu honek 20. artikuluan xedatutakoaren arabera egin beharreko itzulketetarako ezarritakoak izango dira.

11. artikulua. Zerga honen zergaduna izatea.

Aukera horrek berarekin Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauak jarraiki kalkulaturako tributazio efektibo bat ekartzea eragotzi gabe, kapitulu honetan araututako aukerazko erregimena aplikagarria zaien pertsona fisikoek inola ere ez dute zerga honen zergadun izaera galduko. Beraz, Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren araudian xedatutakoaren arabera dagozkien betebeharrak guztiak konplitu beharko dituzte.

V. Kapituluak: Konturako ordainketak

1. Sekzioa: Establezimendu iraunkor bitartez lortutako errentak

12. artikulua. Establezimendu iraunkorren konturako ordainketak.

1. Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotutako errentak, establezimendu iraunkor bitartez lortzen direnean, atxiki edo kontura sartuko dira, eta establezimendu iraunkor horiek behartuta egongo dira konturako ordainketak edo ordainketa zatikatuak egitera, Sozietate Zergaren araudian zerga horren subjektu pasiboentzat ezarritako suposamendu eta baldintza berberetan.

Ez da atxikitzeko edo kontura sartzeko betebeharrak izango, aurreko parrafoan jasotakoa aplikatuz beharrezkoak diren kasuez gain, lurralde espainiarrean egoiliarra ez den entitate finantzario baten establezimendu iraunkor baten sarrera diren interesei eta komisiiei dagokienez, baldin eta entitate horrek Sozietate Zergaren Erregelamenduak 54. artikulua c) letran aipatutako entitateen jarduerak garatzen baditu, establezimendu iraunkor horrek egindako maileguz onorio direnean, salbu aipatu c) letraren bigarren parrafoan jasotako errentak badira.

⁹ Lehenengo paragrafo hau, abenduaren 16ko 101/2003 FORU DEKRETUaren 8. artikulua aldatu du (2003-12-26ko GAO). Foru dekretu horrek Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa GAOari argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean, eta 2003ko urtarilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako du eragina.

2. Establezimendu iraunkorrak behartuta egongo dira lurralde espainiarreko entitate egoiliarren modu berean atxikipenak eta konturako sarrerak egitera.

2. Sekzioa: Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak

13. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko betebeharra.

1. Zergadun Ez Egoiliarren Errenten gaineko Zergaren atxikipena egin beharko da, establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunek jasotako errenta lotuei dagokienez, Zergaren Foru Arauak 30. artikuluan jasotako moduan.

2. Konturako sarrera bat egin beharko da, jasotzaileari dagokion Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotutako errentei buruz, aurreko apartatuan aipatutako errentak espeziean ordaindu direnean.

14. artikulua. Atxiki edo kontura sartzeko obligazioaren salbuespenak.¹⁰

1. Ez da atxikipenik edo konturako sarrerarik egiteko betebeharririk izango, Zergaren Foru Arauak 30. artikuluen 4 apartatuan aipatutako kasuetan.

2. Zergaren Foru Arauak 30. artikuluen 4 apartatuan xedatutakoa aplikatzeko, honelaxe frogatuko da zerga ordaindu dela edo, hala badagokio, salbuespena bidezkoa dela:

a) Zergaren ordainketa: ordaindutako errentei dagokien zergaren aitorpenaren bitartez.

b) Salbuespenak: beren aplikazioa bidezkoa dela frogatzen duten zirkunstantziak bete izanaren frogagiriaren bitartez; nolana ere, Zergaren Foru Arauaren 30. artikuluen 5 apartatuan jasota dagoen aitortzeko betebeharra ere izango da.

Atxikitzea edo kontura sartzera behartutakoak batere atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez duenean, aurreko zirkunstantzietako bat frogatuta dagoela ulertu duelako, eta ondoren salbuespena bidezkoa ez dela edo Zerga ordaindu ez dela egiaztatzen denean, atxikitzaile gisa dagozkion erantzukizunak exijituko zaizkio berari, egin gabe utzi duen atxikipenagatik edo konturako sarreragatik.

3.¹¹ Zergaren Foru Arauak 30. artikuluen 4. apartatuko e) letran jasotakoaren ondorioetarako, ezin izango da atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ondoko errentak direla eta:

a) Ondare irabaziak.

¹⁰ Artikulu hau abenduaren 21eko 99/2004 FORU DEKRETUaren 4. Artikuluen Bi zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ondarearen gaineko Zergarena eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen ditu. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean. (GAO 2004-12-30).

¹¹ Artikulu hau abenduaren 23ko 39/2010 FORU DEKRETUaren 3. artikulua aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2011n aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2010-12-29ko GAO). Aldaketa honek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Aurrekoan xedatutakoa xedatuta ere, atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra egongo da ondoko hauei dagokienez:

1.- Jokoetan, lehiaketetan, errifetan edo ausazko konbinazioetan parte hartzearen ondorioz lortutako sariak, zenbait ondasun, produktu edo zerbitzuen eskaintza, sustapen edo salmentari lotuta egon edo ez.

2.- Erregelamendu honek 18. artikuluan aipatutako Gipuzkoako ondasun higiezinaren eskualdaketa.

3.- Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo berreskuratzegatik sortutako errentak. Kanpoan gertatzen dira inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduak, azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 49. artikuluan araututako fondo eta sozietateetako partaidetza eta akzioetatik datozenak.

b) Abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 100. artikuluen b), c), f), g) eta i) paragrafoetan jasotzen dituen errentak, baina salbuetsita, b) paragrafoari dagokionez, erregelamenduz paradisua fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeen bidez lortutako errentak.

c) Higiezinaren merkatuetan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuen araubide bereziaren aplikazioa aukeratu duten sozietateek banatutako dibidenduak.

4. Fiskalitateko eta Finantzarako foru diputatuari ahalmena ematen zaio behar den prozedura finka dezan balore negoziagarrien jaulkipenetik datozen errentei kasu bakoitzean dagokien atxikipena edo salbuespena egin dadin.

15. artikulua. Atxikitzea edo kontura sartzera behartutako subjektuak.

1. Atxikitzea edo kontura sartzera behartuta egongo dira Zergaren Foru Arauak 30. artikuluen 1 apartatuan aipatutako subjektuak.

2.¹² Aktibo finantzarioei buruzko eragiketetan, baldin eta Estatuko Zorraren baloreak eskualdatzen badira eta inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu eta itzultzen badira, bai eta Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak jasotakoaren arabera Espainian merkaturatu diren akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean ere, atxikipena edo konturako sarrera abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoak, 93.2 artikuluen b), c) eta d) letretan xedatutakoaren arabera atxiki edo kontura sartzera behartuta dauden subjektuek egin beharko dute.

3. Sariak direnean, horiek ordaintzen dituen pertsona edo entitatea behartuta egongo da atxiki edo kontura sartzera.

¹² 2 apartatu hau abenduaren 21eko 99/2004 FORU DEKRETUaren 4. Artikuluaren Hiru zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ondarearen gaineko Zergarena eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen ditu. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean. (GAO 2004-12-30).

4. Atxikitza behartutako subjektuek atxikipenaren sarrera egiteko betebeharra izango dute, betebeharrak ez betetzeagatik beste hori betetzetik salbuetsi gabe.

Atxikipena eta sarrera zuzenean egingo dira etekinaren entitate ordaintzailea Gipuzkoako Foru Aldundia denean.

16. artikulua. Atxikitze eta kontura sartzeko betebeharra sortzea.

1. Izaera orokorrean, atxikitze eta kontura sartzeko betebeharra Zergaren sortzapenaren momentuan sortuko da, Zergaren Foru Arauaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.¹³ Kapital higikorren etekinak eta ondare irabaziak direnean, Errenta Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretuak 104. eta 108. artikuluetan, hurrenez hurren, jasotakoari jarraituko zaio.

17. artikulua. Atxikitze eta kontura sartzeko betebeharra kalkulatzeko oinarria.

1. Izaera orokorrean, atxikitze betebeharra kalkulatzeko oinarria Zergaren Foru Arauaren 30. artikuluan 2. apartatua xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

2. Atxikipena erregelamendu honek 14.3.a).1 artikuluan aipatutako sariaren gainean egin behar denean, kalkulua oinarria sariaren zenbatekoa izango da.

3. Inbertsio kolektiboko erakundearen kapitala edo ondarearen akzio edo partaidetza eskualdaketak edo itzulketak direnean, atxikipen oinarria eskualdaketaren edo itzulketaren balioaren eta akzio edo partaidetza erosketaren balioaren arteko diferentzia izango da. Horretarako, zergadunak eskualdatutako edo berreskuratutako baloreak lehendabizi eskuratutakoak direla ulertuko da.

4.¹⁴ Errentak gauzen bidez ordaintzen direnean, konturako sarrera kalkulatzeko oinarria abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, VI. tituluan III. kapituluaren xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

5.¹⁵ Atxikitze edo kontura sartzeko obligazioa sortzen bada sozietateen gaineko zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 16.8 artikuluan aipatutakotik eratorritako bigarren doiketagatik, atxikipenaren oinarria hitzartutako balioaren eta merkatuko balioaren arteko aldea izango da.

¹³ Bigarren apartatu hau Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen dituen Abenduaren 10eko 66/2002 FORU DEKRETUAREN 3. artikuluko hiru apartatuak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin (GAO 2002-12-17).

¹⁴ Apartatu hau Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen dituen Abenduaren 10eko 66/2002 FORU DEKRETUAREN 3. artikuluko lau apartatuak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin (GAO 2002-12-17).

¹⁵ Apartatu hau Ekainaren 16ko 20/2009 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamendua eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren aldatzen dituenak gehitu du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean. (GAO 2009-06-23).

18. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera ondasun higiezinak eskuratzean.

1.¹⁶ Establezimendu iraunkorrik gabe jarduten diren Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezinak eskualdatzen dituztenean, eskuratzailerak behartuta egongo da beren artean erabakitako kontraprestazioaren 100eko 3 atxikitza eta sartzera, edo konturako sarrera egitera, haiei dagokien Ez- Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketaren kontzeptuan.

2.¹⁷ Eskuratzailerak ez da atxikitza eta konturako sarrera egitera behartuta egongo, kasu hauetan:

A) Eskualdatzailerak pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari edo sozietatearen gaineko zergari lotuta dagoela frogatzen duenean zerga administrazioko organo eskudunak luzatutako ziurtapen bitartez.

B) Lurralde espainiarrean egoiliar diren sozietatearen kapitalak eratzean edo gehitzean ondasun higiezinak ematen direnean.

3. Atxikitza eta kontura sartzera behartutako subjektuak aitortzen aurkeztu edo atxikipen edo konturako sarreraren zenbatekoa ordaindu beharko du, hilabeteko epean eskualdaketa egunetik aurrera.

4. Lurralde espainiarrean egoiliar ez den zergadunak behin betiko zerga aitortu eta, hala dagokionean, ordaindu beharko du. Horretarako, eskuratzailerak atxikitako edo kontura sartutako zenbatekoa konpentsatuko du kuotan, hiru hilabeteko epean atxikipena ordaintzeko epea amaitzen denetik aurrera.

Zerga Administrazioak, hala behar denean, atxikitako edo kontura sartutako soberakina itzuliko du, behar diren egiaztapenak egin ondoren.

5. Lehenago aipatutako atxikipena edo konturako sarrera ordaindu ez bada, eskualdatutako ondasunak lotuta geratuko dira atxikipen horren edo konturako sarreraren eta zergaren artean txikiena den zenbatekoa ordaintzeko; eta jabetza erregistratzaileak horrela jasota utziko du inskripzioaren bazterreko oharra jarri eta finkaren bitartez zenbateraino erantzun den adieraziz. Hala dagokionean, ohar hori deuseztatuko da irautitzen denean edo zergari lotu gabe dagoela edo zorra indargabetu dela frogatzen duen ziurtapen administratiboaren bidez.

¹⁶ Atal hau urtarilaren 9ko 2/2007 FORU DEKRETUaren 5. artikulua aldatu du. Foru Dekretu honek Pertsona Fisikoaren Errentaren, Sozietatearen eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergen Erregelamenduak aldatzen ditu, mendetasun kerkariaren arloan nahiz atxikipenaren eta konturako sarreraren tasen arloan, eta 2007ko ekitaldiko eguneratze koefizienteak finkatzen ditu Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak 47.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean eta aipatutako artikulua 2007-01-01etik aurrera ditu ondorioak. (2007-01-12ko GAO).

¹⁷ Atal hau urtarilaren 9ko 2/2007 FORU DEKRETUaren 5. artikulua aldatu du. Foru Dekretu honek Pertsona Fisikoaren Errentaren, Sozietatearen eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergen Erregelamenduak aldatzen ditu, mendetasun kerkariaren arloan nahiz atxikipenaren eta konturako sarreraren tasen arloan, eta 2007ko ekitaldiko eguneratze koefizienteak finkatzen ditu Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak 47.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean eta aipatutako artikulua 2007-01-01etik aurrera ditu ondorioak. (2007-01-12ko GAO).

6. Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak artikulu honetan xedatutakoa betetzeko erabili beharreko aitorten ereduak finkatuko ditu.

19. artikulua. Atxikitzailearen eta kontura sartzera behartutakoaren betebeharrak.¹⁸

1. Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga dela eta atxikitzera edo konturako sarrera egitera behartutakoak hiruhilean behin aurkeztu beharko du atxikipenen edo konturako sarreraren aitortena, aurreko lehen hiruhilabete naturalari dagokionez, eta haien zenbatekoa Foru Diruzaintzan ordaindu beharko du.

Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako aitortena eta ordainketa hilean behin egingo da, aurreko hilean atxikitako zenbatekoei eta kontura egindako sarrerei dagokionez, baldin eta atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak badaude abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoak, 71. artikularen 3 apartatuko 1. eta 1.bis zenbakietan jasotzen dituen egoeren barruan.

Atxikitzaileek eta kontura sartzera behartutakoek aitorten negatiboa aurkeztuko dute, Zergaren Foru Arauak 30. artikularen 4 apartatuan jasotako errentak ordaindu dituztenean, salbu Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak ezarritako kasuetan.

2. Atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak egindako atxikipenen eta konturako sarreraren laburpena aurkeztu beharko dute. Laburpen horretan, identifikazio datuekin batera, atxikitzaileak edo kontura sartzera behartutakoak ordaindu dituen zergari lotutako errenten jasotzaileen zerrenda bat aurkeztuko da. Gainera, bertan sartuko dira Zergaren Foru Arauaren 30. artikularen 4 apartatuan jasotakoari jarraituaz atxikipena egin ez zaien errentak ordaindu zaizkion subjektuak. Jasotzaile zerrenda horretan, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitzen dituen datuak sartu beharko dira.

Aurreko parrafoetan jasotako betebeharrak berberak izango dituzte Espainian helbideratuta dauden, egoiliar diren edo ordezkaturik dauden entitateek, baldin eta atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako sarrerak besteren kontura ordaintzen badituzte, edo balore errentak gordailatu edo horien kobrua kudeatzen badute.

3. Atxikitzaileak edo kontura sartzera behartutakoak zergadunaren alde luzatu beharko du ziurtapen bat atxikipenei edo kontura sarrerei buruz, bai eta aurreko apartatuan aipatutako urteko laburpenean sartu beharreko zergadunaren gainerako datuei buruz ere.

Aurreko parrafoetan jasotako betebeharrak berberak izango dituzte Espainian helbideratuta dauden, egoiliar diren edo ordezkaturik dauden entitateek, baldin eta atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako sarrerak besteren kontura

¹⁸ Artikulu hau, abenduaren 17ko 68/2001 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoa, maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoa eta ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoa aldatzen dituen abenduaren 17ko 68/2002 FORU DEKRETUko 2.artikuluak aldatu du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean. (2002-12-31ko GAO).

ordaintzen badituzte, edo balore errentak gordailatu edo horien kobrua kudeatzen badute.

4. Ordaintzaileek zergadunei egindako atxikipena edo konturako sarrera jakinarazi beharko diete, errentak ordaintzeko momentuan, zein portzentaia aplikatu duten adierazita.

5. Artikulu honetan aipatutako aitorenak Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak finkatutako ereduetan egingo dira. Atxikitzalea aitorenetan jasotako datu guztiak, berari eragin diotenak, betetzera behartuta dago.

Aitorpena eta, hala dagokionean, sarrera Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitzen duen moduan, tokian, epeetan eta dokumentazioarekin batera egingo dira.

20. artikulua. Itzulketak.¹⁹

1. Zergaren kuota baino handiagoa den atxikipena edo konturako sarrera jasan denean, kuota horren gaineko soberakina itzultzeko eskatu ahal izango zaio Zerga Administrazioari .

Horretarako, zergaren autolikidazioa Fiskalitaterako eta Finantzetarako foru diputatuak erabakitzen duen ereduaren egingo da. Era berean, aipatu diputatuak finkatzen dituen moduan, tokian, epeetan eta dokumentazioarekin batera aurkeztuko da.

2. Zergaren Foru Arauak 3. artikuluan jasotakoaren arabera, Zerga Administrazioak soberakina itzuliko du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak 104. artikuluan jasotako moduan.

3. Zergadunek ez ezik, erantzule solidarioek eta atxikitza behartutako subjektuek ere itzultzeko aitorenak aurkeztu ahal izango dituzte.

4. Ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen baten aplikaziotik eratorritakoak baino zenbateko handiagoko kopuruak sartu edo atxikipenak jasan direnean, aplikazio hori eta itzulketa eskatu ahal izango dira lau urteko epearen barruan, atxikipenaren sarrera egunetik edo aitoren edo ordainketa egunetik aurrera.

Bi lurraldeetan berdin jokatzen ez bada, bestelako epea finkatu ahal izango da.

21. artikulua. Lan etekinen gainean atxikitze betebeharrak, egoitza aldatzen denean.²⁰

¹⁹ Artikulu hau, abenduaren 16ko 101/2003 FORU DEKRETUaren 10. artikulua aldatu du (2003-12-26ko GAO). Foru dekretu horrek Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa GAO n argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako du eragina.

Laugarren paragrafoan egindako aldaketa, bertan jasotako epeari dagokionez, 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera ordaindutako kopuruei eta jasandako atxikipenei aplikatuko da.

²⁰ Artikulu hau, abenduaren 16ko 101/2003 FORU DEKRETUaren 11. artikulua gahitu du (2003-12-26ko GAO). Foru dekretu horrek Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa GAO n argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako du eragina.

1. Zerga honen zergadunak ez diren baina enplegu emaileak bidalita atzerrira aldatu direla-eta izaera hori hartuko duten besteren konturako langileek Zerga Administrazioari jakinarazi ahal izango diote zirkunstantzia hori, Fiskalitaterako eta Finantzatarako foru diputatuak onartzen duen komunikazio ereduaren bitartez. Era berean, diputatuak zehaztuko du komunikazioa nola, non eta noiz aurkeztu, bai eta eredu horri erantsi beharreko dokumentazioa ere.

2. Aipatu komunikazioan, ondoko hauek adieraziko behar dira: langilearen eta lan etekinen ordaintzailearen identifikazioa, noiz irten den Gipuzkoatik eta noiz hasi den lanean atzerrian. Era berean, adierazi beharko da lan harreman horretan ba ote dauden datu objektiboak beste herri batean izandako lan harremanaren ondorioz herri horretan 183 egunetik gorako egonaldia frogatzeko, lekualdaketa gertatzen den urte naturalaren barruan edo, hori horrela ez bada, ondorengo urtean.

3. Behin komunikazioa eta dokumentazioa aztertutik, bidezkoa bada Zerga Administrazioak frogagiria luzatuko dio langileari, komunikazioa aurkeztu ondorengo hamar laneguneko gehieneko epean. Frogagirian zerga honen atxikipenak noizdanik aurrera egingo diren adieraziko da.

4. Zerga Administrazioak luzatutako dokumentuaren ale bat emango dio langileak lan etekinen ordaintzaileari, hark han adierazitako datatik aurrera Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergaduntzat har dezan, atxikipenak egiteko.

Aipatu frogagiriekin gehienez bi urtetan izango dituzte ondorioak: lekuz aldatu den urtean eta ondorengo urtean edo, bestela, lekualdaketa urtea konputatzea ezinezkoa bada, ondoko lehendabiziko bi urteetan.

5. Prozedura hori Gipuzkoan lortu diren eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak 12. artikuluan jasota dauden errentak zehazteko arauak aplikatuta atxikipenak lurralde horretan ezinezkoa denean ere. Hori gertatzen denean, langile horiek kontuan hartuko dira Zergaren Foru Arauak 30. artikuluan 6 apartatuan jasotako betebeharrak konplitzeko.

6. Lehenago deskribatutako prozeduraren arabera frogagiria lortu izanak ez du langilea salbuetsiko zerga egoitza berria Zerga Administrazioari frogatzetik.

3. sekzioa. Errentak egozteko erregimenean dauden entitateak.²¹

22. artikulua. Ordainketak zatikatzeko betebeharra.

Zergaren Foru Arauak 32.sexies artikuluan 1 apartatuan aipatutako zergadunak behartuta egongo dira zerga honen konturako ordainketa zatikatuak egitera, zerga honen zergadun eta Espainian establezimendu iraunkorra duten zergadunen modu berean.

²¹ Sekzio hau, abenduaren 16ko 101/2003 FORU DEKRETUAren 12. artikulua gehitu du (2003-12-26ko GAO). Foru dekretu horrek Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa GAO n argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean, eta 2003ko urtarilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako du eragina.

23. artikulua. Kuota itzultzea ezarpen bikoitzeko hitzarmen mesedegarriagoa aldarrikatzen denean.

Zergaren Foru Arauak 32.sexies artikulua 4 apartatua jasotakoaren ondorioetarako ezarpen bikoitzeko hitzarmena aldarrikatzen denean, Erregelamenduak 20. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

Lehenengoa.

1. Indarrean dagoen araudian Sozietate Zergaren Erregelamenduari buruzko ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuko XVI. kapituluari buruz egindako aipamenak ulertuko dira foru dekretu honen bidez onartutako Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan dagozkion xedapenei buruz eginak direla.

2. Indarrean dagoen araudian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa batzuk arautu eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua atxikipenen eta konturako sarreraren alorrean aldatu eta atzerriko egoiliarrek lortutako konturako ordainketak arautzen dituen urtarilaren 19ko 3/1999 Foru Dekretuko IV. tituluari buruz egindako aipamenak ulertuko dira foru dekretu honen bidez onartutako Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan dagozkion xedapenei buruz eginak direla.

3. Indarrean dagoen araudian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 25eko 21/1992 Foru Dekretuko VII. tituluari buruz egiten diren aipamenak ulertuko dira foru dekretu honen bidez onartutako Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan dagozkion xedapenei buruz eginak direla.

Bigarrena.

Foru dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrerako ondorioekin, izenez aldatuko da urtarilaren 19ko 3/1999 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa batzuk arautu, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua atxikipenen eta konturako sarreraren alorrean aldatu eta atzerriko egoiliarrek lortutako konturako ordainketak arautzen dituen. Hona hemen izendapen berria: urtarilaren 19ko 3/1999 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa batzuk arautu eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua atxikipenen eta konturako sarreraren alorrean aldatzen duena.

Hirugarrena. Espainiako inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak mugaz gaindi merkaturatzea.²²

1. Akzio edo partaidetzen titularitatetik eratortzen diren errentak Gipuzkoan lortutakotzat hartzen badira Zergaren foru arauak 12. artikulua 2 apartatuko k) letraren a') letran ezarritakoaren arabera, atzerrian helbideratuta dauden entitate

²² Hirugarren xedapen gehigarri hau abuztuaren 2ko 35/2006 FORU DEKRETUAren 3. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Foru Dekretu honek honako erregelamenduak aldatzen ditu: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, Sozietateen gaineko Zergarena, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena eta fakturatzeko obligazioena. Aldaketak 2005eko azaroaren 9az geroztik izanen ditu ondorioak. (GAO 2006-08-18).

merkaturatzaileek Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuaren bidez onartuak, xedapen gehigarri bakarrean aurreikusten dituen zerrendak aurkeztuko dizkiote Gipuzkoako Foru Aldundiari. Errege Dekretu horretan arautu egiten da sozietate kudeatzaileek edo, hala bada, azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututako inbertsio sozietateek zein kasutan erregistratzen dituzten kontu globaletan, eta atzerrian helbideratutako entitate bitartekarien izenean, beren akzio edo partaidetzen mugaz gaindiko merkaturatzeak.

Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak ezarriko ditu zerrenda horiek aurkezteko prozedurak, ereduak eta epeak.

2. Entitate merkaturatzaileak ez baditu betetzen aurreko 1 apartatuan aipatu diren obligazioak eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuaren bidez onartuak, xedapen gehigarri bakarraren 3 apartatuan aipatzen direnak, sozietate kudeatzaileak edo inbertsio sozietateak zerga Administrazioaren aurrean erantzun beharko dute ez-betetze horren ondorioz sartu gabe utzi diren atxikipenengatik eta konturako ordainketengatik edo Gipuzkoako Foru Aldundiari eman behar zitzaion informazioa ez adierazteagatik.

3. Entitate merkaturatzaileak ez baditu betetzen aurreko 1 apartatuan aipatu diren obligazioak eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuaren bidez onartuak, xedapen gehigarri bakarraren 3 apartatuan aipatzen direnak, inbertitzaile ez-egoiliarren identifikazioa eta zerga egoitza frogatzeko era apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, eta berau garatzen duten xedapenek diotena izango da.»

Laugarrena. Atxikipena edo konturako sarrera egitea Sozietateen gaineko Zergako karga tasa orokorraren mende ez dauden kapital aldakorrek inbertsio sozietateek egin dituzten ekarpen itzulketa bidezko kapital murrizpenetan eta jaulkipen primen banaketetan.²³

Zergaren foru arauak 30. artikuluen 4. apartatuko b) letran jasotakoaren ondorioetarako, atxikipena edo konturako sarrera egitea derrigorrezkoa izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak bosgarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera ekarpenen itzulketa bidez kapital soziala murrizten denean eta akzioen jaulkipen prima banatzen denean.

Kasu horietan, atxikipena edo konturako sarrera egin behar dute aurreko paragrafoan aipatutako bosgarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan jasotakoaren arabera atxikitzea edo kontura sartzera behartuta dauden subjektuek.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

²³ Xedapen gehigarri hau maiatzaren 24ko 15/2011 FORU DEKRETUaren 3. artikulua gehitu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2011-05-30eko GAO), eta aldaketak 2011-01-01etik aurrera ditu ondorioak

1. Foru dekretu hau indarrean jartzean, bertan xedatutakoaren aurka doazen xedapen guztiak indarririk gabe geratuko dira, eta bereziki hauek:

a) Ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuak, Sozietate Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, XVI. kapituluan eta bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.

b) Urtarrilaren 19ko 3/1999 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa batzuk arautu, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua atxikipenen eta konturako sarreraren alorrean aldatu eta atzerriko egoiliarrek lortutako konturako ordainketak arautzen dituenak, IV. tituluan jasotako xedapenak eta hasierako azalpenean IV. titulu horri buruz egindako aipamena.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 25eko 21/1992 Foru Dekretuko VII. titulua eta lehen xedapen iragankorra.

2. Indarrean jarraituko dute foru dekretu honen aurka ez doazen maila txikiagoko erregelamenduzko arauak, dekretu honetan jasotako ahalmen arauemaileak erabiltzen ez diren bitartean.

AMAIERAKO XEDAPENA

1. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

2. Establezimendu iraunkor bitartez jarduten diren zergadunen kasuan, foru dekretu honetako arauak Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 26ko 2/1996 Foru Araua aplikagarria den zergaldietan aplikatuko dira.

3. Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau gauzatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Otsailaren 28ko 6/2000 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua garatzen duten zenbait foru dekretutan, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen foru dekretuan eta Ez Egoiliarren Errenta Zergaren Erregelamendua onartzen duen foru dekretuan dieta eta konturako ordainketei buruzko artikulua jakin batzuk aldatzen dituen (2000-3-8ko GAO).*
 - 5. artikulua 4. apartatua sartzen du 14. artikuluan.
- *Irailaren 11ko 57/2001 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga garatzen dituzten erregelamenduen zenbait artikulua aldatzen dituen (2001-09-18ko GAO).*
 - 4. artikulua 14.3 artikuluko b) apartatua aldatu du.
- *Abenduaren 10eko 66/2002 FORU DEKRETUA, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen dituen, 2002ko urtarrilak 1etik aurrerako ondorioekin (2002-12-17ko GAO).*
 - 14. artikuluko 3. apartatuaren b) letra aldatzen du.
 - 15. artikuluko 2. apartatua aldatzen du.
 - 16. artikuluko 2. apartatua aldatzen du.
 - 17. artikuluko 4. apartatua aldatzen du.
- *Abenduaren 17ko 68/2002 FORU DEKRETUA, ondoko foru dekretuak aldatzen dituen atxikipenen eta konturako sarreraren aitortzenak eta urteko laburpenak aurkezteko epeari dagokionez: abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoa; maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoa; eta ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoa. (2002-12-31ko GAO).*
 - 19 artikulua aldatu du.

- *Abenduaren 16eko 101/2003 FORU DEKRETUA, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua aldatzen duena {2003-12-26ko GAO}.*
 - 1. artikulua 1. artikularen rubrika aldatzen du eta 1.bis artikulua bihurtzen du.
 - 2. artikulua 1.artikulu berri bat gehitzen du.
 - 3. artikulua 7. artikuluko 2. apartatua aldatzen du.
 - 4. artikulua 8. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzen ditu.
 - 5. artikulua 8. artikuluko 3. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen du.
 - 6. artikulua 8. artikuluko 4. apartatua aldatzen du.
 - 7. artikulua 9. artikuluko 2. apartatua aldatzen du.
 - 8. artikulua 10. artikuluko 5. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen du.
 - 9. artikulua 14. artikulua aldatzen du.
 - 10. artikulua 20. artikulua aldatzen du.
 - 11. artikulua 21. artikulua gehitzen du.
 - 12. artikulua 3. Sekzioa gehitzen du.
- *Abenduaren 21eko 99./2004 FORU DEKRETUA, aldatzen dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ondarearen gaineko Zergarena eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena. (2004-12-30ko GAO).*
 - Bere 4. artikulua 9. artikuluko 2 apartatua, 14. artikulua eta 15. artikuluko 2 apartatua aldatu ditu.
- *Abuztuaren 2ko 35/2006 FORU DEKRETUA, honako erregelamenduak aldatzen dituen: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, Sozietateen gaineko Zergarena, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena eta fakturatzeko obligazioena (GAO 2006-08-18).*
 - Bere 3. artikulua aldaketa hauek egin ditu:
 - 14. artikularen 3.a) apartatuko 3. paragrafoa aldatu du.
 - Xedapen gehigarri bat gehitu du, hirugarrena.
- *Urtarrilaren 9ko 2/2007 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren, Sozietateen eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergen Erregelamenduak aldatzen dituen, mendetasun kenkariaren arloan nahiz atxikipearen eta konturako sarreraren tasen arloan, eta 2007ko ekitaldiko eguneratze koefizientea finkatzen dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak 47.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako.(GAO 2007-01-12).*

- Bere 5. artikulua 18. artikularen 1 eta 2 atalak aldatu ditu.
- *Ekainaren 16ko 20/2009 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamendua eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen dituen.*(GAO 2009-06-23).
 - Bere 2. artikulua 17. artikulari 5. apartatua gehitu dio.
- *Azaroaren 23ko 32/2010 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen dituen.*(GAO 2010-12-1).
 - Bere 3. artikulua 14.3.a). artikularen 3. ordinala aldatu du.
- *39/2010 FORU DEKRETUA, Abenduaren 23koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2011n aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituen* (2010-12-29ko GAO).
 - Bere 3. artikulua 14. artikularen 3 apartatua aldatu du.
- *15/2011 FORU DEKRETUA, maiatzaren 24koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen dituen* (2011-05-30eko GAO)
 - Bere 3. artikulua xedapen gehigarri bat erantsi du, laugarrena.